

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

Saila	Laburpena
Obrak	Txonta kaleko auzotar batek eskatu du kale horren eta Arane kalearen espaloia konpontzeko. Dioenez, toki askotan, batez ere autopista azpiko zatian, arrakala asko daude, eta jendeak estropezu egin dezake; eta forjatua hondatuta dagoela.
Zerbitzuak	Bizilagun batek argi gehiago jartzea eskatu du Txonta ingururako.
Alkatetza	Pertsona batek jakin nahi du noiz amaituko den Azitain-Maltzagako bidegorria.
Alkatetza	Herritar batek eskatzen du Udalak gestioak egin ditzala Azitain-Maltzagako bidegorria ez pasatzeko AP-8 autobidearen sarrera-irteera ondotik.
Obrak	Pertsona batek informazioa nahi du Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko proiektuari buruz.
Obrak	Herritar batek proposatu du pasealeku bat egitea Usartza gainaren eta Krabelinen artean.
Alkatetza	Pertsona batek informazioa nahi du jakiteko zer gestio egiten ari den Udala herriaren ekialdean supermerkatu bat jartzeko.